



25. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

Alarma egoerako 24. eguna. 2020ko apirilaren 9a, asteazkena

Hilaren 8ko, asteazkeneko, Kudeaketa / Jarduerak

CORONAVIRUSen ondokoa prestatzen

Erakunde eta iritzi emaille guztiak ados daude. **Pandemia hau amaitutakoan geldituko diren egoerei nola heldu prestatu behar da.** Gobernuak ezohiko aurrekontuak aztertzen ari dira. Erakunde guztiek pandemiak eragindako kalteak ebaluatu behar dituzte. Eta non nahi entzuten da ***Ez da inor atzean utzi behar.***

Baina, jakina, **oso zalantza handiak daude.** Ahots asko dira biharamunean politika asko aldatzeko beharra aldarrikatzen dutenak, ikusi dugunaren argitan. Baina politika horiek gidatzen zituzten berberak aldatuko al dute orain norabidea? Izan ere, logikoa da aldarria izaten hasten den lelo hori: ***"Ez gara normaltasunera itzuliko. Normaltasuna zen arazoa".***

Eta hori bera aurreikusi behar dugu gure eremuan eta lantzen ari garen kolektiboarentzat. Are gehiago, aurrekariak ikusita. Izan ere, instituzioek ontzat eman dute kalean bizi ziren pertsona multzo handientzako baliabiderik ez zegoela. Dirua haietako parte batentzat bakarrik iristen zela, eta besteak babesik gabe geratu behar zuela. Eta pandemiaren ondorioz gainerako herritarren osasuna babestearren kale gorritik ateratzera behartuta sentitu direnean baino ez dituzte larrialdiko baliabideak jarri.

Are gehiago, gure agintarien ahotik ez dugunean hitz erdi bat ere entzun konfinamendua amaitzen denean pertsona horien beharrianen kargu egingo direla adieraziz. Kale egoeran daudenak inoiz aipatzen badituzte, haien behar guztiak betetzen ari direla baieztatze baina ez da izaten, nahiz eta askotan errealitateak gezurtatu hain baieztapen borobilak.

Hori dela eta, **Manifestu** bat prestatu dugu, honen ondoren datorrena, **ahalik eta laguntza gehien lortzeko, biharamunean, edo hurrengo astean edo hilean, pertsona horiek berriro kalean jar ez daitezten.** Herritarren babes sendoa erakutsiz bakarrik lortu dezakegu amaiera hori ez izatea. Pertsonengan, lehenik eta behin, onarritutako politikak eskatzeko aukera handia dugu, eta bigarren mailako plano batean kokatzea hain garestiak, eta ez beti justifikatuak, diren hirigintza megaproiektuak.

Manifestu hau ahalik eta gehien zabaltzeko eta babesak jasotzeko deia egiten dugu, bai mota guztietako erakundeetatik, bai gizabanakoengandik, amaieran datorren estekan. Askok dugu jokoan, kalean bizi diren pertsonentzako, eta gure gizartearentzako.

BORONDATEZKO BALIABIDEEN ESKAERA

2 kanpin-denda behar ditugu oraindik kalean jarraitzen duten mutilentzat.



25. BULETINA

Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana

Ez itzazue kaleratu

Hortxe zeuden. Ez genituen ikusten. Ez genituen ikusi nahi. Eta ehunka dira.

Pandemia honek agerian utzi du **ikusezin** egon ohi den **errealitate bat**. **Etxerik gabe eta egoera ahulean dauden pertsonak behartuta daude kalean bizitzera, eraikin abandonatuetan edo laguntza publikoren bat duten geletan.**

Administrazioek, hitzaldiak hitzaldi, ez dituzte hori ekiditeko aski baliabide dituzten politikak.

Pandemiak urgentziazko baliabideak erabiltzera behartu ditu. Galdera: iraungipen-data al dute? Kalera botako al dituzte alarma-egoera amaitutakoan? Zuzen ote daude zera diotenek, kezka bakarra horiek kaleetatik kentzea dela, bestean osasuna bermatzeko?

Ez dugu inor atzean utziko. Pedro Sánchez. 2020/03/18

Gure konpromisoa, betiere, inor atzean ez uztea da. Iñigo Urkullu. 2020/03/27

Lanean jarraitu inor atzean gera ez dadin. Markel Olano. 2019/04/08

Goiak Donostia oparoa hitzematen du, inor bazterrean utziko ez duena. 2019/06/16

Ez dezagun inor atzean utzi. Emandako hitza betetzeko unea da.

Dagokien instituzioei eskatzen diegu, udalei, Aldundiari, Jaurlaritzari, arren ekin diezaiotela gaur bertan **biharamunerako beharko diren baliabideak programatzeari**.

Ekipamendu masifikatu gabeak behar dira, **kudeatzeko moduko pertsona kopuru batentzat, intimitaterako guneak** dituztenak, ezaugarri jakin batzuk kontuan izango dituztenak **seme-alaben familientzat, emakumeentzat... Herri- eta hiriguneetatik ez urrun**, hezkuntza-, lan-, aisialdi-jarduera ohikoenak burutu ahal izateko... **Elikatze-beharrak** aseko dituztenak. **Behar diren profesionalen** arreta izango dutenak. Gaur egungo formatua, urgentziazko harrerarako, aterpetxe publikoak, horren adibide dira.

Behar adina **indartu beharra dago profesional taldeak eta gizarte-zerbitzuak**, zeregin horiei aurre egiteko eta pertsona erabiltzaileei aurrera egiten laguntzeko.

Jantoki Sozial Publikoak behar dira. Bai gizatalde horrentzat, eta bai egoera ahulean dagoen edonorentzat. Zeregin hori ezin da utzi elkartasunaren edo karitatearen bizkar.

Eskakizun gutxieneko horiek inoiz baino beharrezkoagoak dira pandemiaren ondoren datorren panorama kontuan izanik. Populazio-sail zaurgarrienek dute arriskurik handiena ondorioak pairatzeko. **Mobiliza gaitezen hori ekiditeko.**

Pertsona horiek kaleratzea eragotzi nahi duten erakunde eta pertsona guztiei **dei egiten diegu eskakizun hauen alde egin dezaten.**

Red Ciudadana de Acogida de Donostia / Donostiako Hiritarren Harrera Sarea

Babesen bilketa: <https://cutt.ly/OtKaVgi> 688 869 653

Donostiako Hiritarron Harrera-Sarea / Red de Acogida Ciudadana de Donostia

Kontaktua: redacogidaciudadana@gmail.com

675 71 53 15

Facebook: @HiritarronHarreraSarea

Instagram: @harrerasarea

Dohaintzak: CC ES44 2095 5013 70 9119577666

ZABALDU, bidali zure ekarpenak, iradokizunak, salaketak.